

Txekorra eta Ixabel

«Arrakasta» izan da bi ekitaldietan ▶ 7



Giro polita izan da herri kirolen lehian Santa Krutz egunean Orexan

AUZOAK ▶ Intxaurpek herri kiroletan eta sokatiran irabazi zuen, Elbarrenek pilotan; amaitu dira jaiak ▶ 6



Aizkora apustua egin zuten atzo eguerdian herritarren artean. DANI GIBELALDE



LEIRE MONTES

ANDONI ITURZAETA ▶ GAZTE ABERTZALEEN IDAZKARIA

«Ezker nazionalaren esparrua sendotzeko apustua egiten dugu»

Beste bi urterako Gazte Abertzaleen idazkari izendatu berri dute ▶ 2

ANOETA ▶

Iturtzuloko etxebizitzak esleitu dituzte

Bildo 5 kooperatibak eraikiko ditu ▶ 5

ZIZURKIL ▶

Jende eta txalo ugari izan da Aukeran konpainiaren saioan

Antolatzaileak gustura daude Maiatza Saltsan egitarauaren hasierarekin ▶ 4

"... ez utzi biharko; etor zaitez gaur Estetikako Zentru Integral berria ezagutzera..."

Estetikako Zentru Integrala

Maite

Calle Herreros - TOLOSA - 943 67 03 38

Itatamendu eraginkorra emaitzak nabari dira

ANDONI ITURZAETA ▶ GAZTE ABERTZALEKO IDAZKARIA



LEIRE MONTES

«Gure erakundeak leialtasun osoz jokatu behar du alderdiarekiko, baina jarduera politikoa izanda»

VII. Nazio Biltzarra egin dute asteburuan Gazte Abertzaleek Biarritzen, datozen bi urteetako lan-ildoak zehazteko eta Nazio Batzorde berria hautatzeko. 120 kideetatik %60ak baino gehiagok hala erabaki duela, Andoni Iturzaeta tolosarra izango da erakunde idazkari beste bi urtez. **Idazkari hautatu zaituzte berriro. Pozik?** Pozik baino gehiago, gustura. Bi hautagaitza aurkezteak nolabaiteko ezinegona suposatzen du, eta pozik ezin egon.

Atera den zerrenda atera delako gustura nago, ordea. **Zer ezberdintasun zegoen bi zerrenda horien artean?** Gazte Abertzaleak izan behar lukeenaren inguruan, batik bat. Guk uste dugu gure erakundeak pizgarri izan behar duela alderdiaren barruan, harekiko leialtasun osoz jokatuz, baina era berean jarduera politikoa izanik. **Iritziak emateko gai, esan na-hi duzu?** Gure proiektuaren eraikuntzarako tresna izan behar du, eta

baita alderdiarekiko abangardia eta berme ere. Kritikarako eta iritziak emateko gaitasuna izatea ezinbestekoa da. **Proposamen politikoaren inguruan zer adostu duzue?** Gazte Abertzaleok apustua egiten dugu ezker nazionalaren esparrua sendotzeko. Are gehiago momentu historikoan gauden honetan. **Horregatik ez duzue EA eta EAJren arteko hauteskunde koalizioa begi onez ikusten?** Erakunde sozialista-independentista garen aldetik, ez du

zentzurik eskuineko alderdi batekiko koalizioa aurrera eramateak. Ezker abertzaleen esparrua indartzeko badira beste alderdi batzuk, eta horiekin adostuta eraiki behar da Euskal Herriko ezker berria. **Aurrera begirako lanik ba al duzue zehaztuta?** Kanpora begira proiektua eraztea, unibertsitatean eta kalean presentzia handitzea... Eta barrura begira, erakundearen jarduera finkatzea, alderdiarekiko abangardia eta bermea izatea lortzeko. ◀

KULTURA ▶

Antzerkia, musika eta bestelako ikuskizunak datozen egunetarako

Juan Tamarizek ostiralean ematekoa zuen emanaldia bertan behera geratu da; uda pasatu bitarte ez da zine-kluba izango

IRATXE ETXEBESTE

Tolosako Udalak prest dauka maiatzeko kultur egitaraua. Hilerokoan aldean ez du aldaketa handirik eskaintzari dagokionean, erakusketak antzerki emanaldiak, musika... askotarikoko ikuskizunak izango direlako ekaina bitarte. Hala ere, ostiralerako aurreikusitako zegoen emanaldia bertan behera geratu da; izan ere, Juan Tamarizek ez du Leidorren ikuskizuna eskainiko. Bestalde, zinema zaileantzat ere bada albisterik: uda pasatu arte ez da zine-klubeko saio gehiago izango Leidorren.

ANTZERKIA

'Bazen behin... gutxi gora behera'. Hilaren 14an eskainiko dute antzezlan Leidor aretoan 22:30etik aurrera. **'Igandeetan piratek jai'.** Markeliñe taldearen haur antzerkia hilaren 15ean izango da, Leidor aretoan, 17:00etan. **'Marionetas del pene'.** Hilaren 21ean izango da Yllana taldearen antzerki emanaldia 22:30etik aurrera.

ERAKUSKETAK

Eskultura. Jose Mari Sasieta eskulturgilearen erakusketa

maiatzaren 8a bitarte izango da ikusgai Aranburu Jauregian, arratsaldero, astelehenetan eta jaiegunetan izan ezik, 17:30etik 20:30era. **Argazkiak.** Anjel Cuervo abenturazale tolosarraren argazki erakusketa maiatzaren 7tik ekainaren 12ra izango da ikusgai, Aranburu Jauregian, arratsaldero: 17:30etik 20:30era, astelehenetan eta jaiegunetan izan ezik. **Pintura.** Faustino Aranzabalen pintura erakusketa Aranburu Jauregian izango da ikusgai, arratsaldero, maiatzaren 14tik uztailaren 3ra, 17:30etik 20:30era astelehenetan eta jaiegunetan izan ezik. **Marraxkiak.** Amigos de Cuba y P'alante elkarteak antolatuta, Cubako haurrek egindako marraxkien erakusketa izango da maiatzaren 10etik 14ra Kultur Etxean. **Juul.** Haur liburutegiak antolatutako Juul erakusketa izango da maiatzaren 17tik 21era Kultur Etxean. Bisita gidatuak izango dira eskola orduetan, eta publikoarentzat, berriz, 17:00etatik 20:00etara. **Sentsibilizazio Astea.** Gainditzen, Goierriko eta Tolosaldeko Gorren elkarteak antola-

tutako argazki erakusketa hilaren 8a arte izango da zabaiki Kultur Etxean. Sentsibilizazio kanpainaren baitan antolatutako ekimena da. **Ibilgailu Klasikoak.** Hilaren 29an eta 30ean izango da Tolosako Club Motor-Retro elkarteak eta Udalak antolatutako Ibilgailu Klasikoan X. Nazioarteko erakusketa eta salmenta Ferialekuan.

IKUSKIZUNAK

Betizu Show-a. Ero-etxe elkarteak antolatuta, Betizu Show-a izango da maiatzaren 29an, 17:00etatik aurrera, Leidor aretoan.

JARDUNALDIAK

AHT jardunaldiak. Hilaren 11n, 12an eta 14an egingo dituzte AHT jardunaldiak Kultur Etxean. 20:00etatik aurrera, mahai-inguruak izango dira: **AHTren aurkako arrazoiak eta egitasmoaren egungo egoera.** *Acuerdo sindical contra el TAV: por un ferrocarril publico y social* eta *AHTren proiektua eztabaidagai.*

MUSIKA

Musikaria 2004. Udal Musika Eskolak antolatutako Musika Astea maiatzaren 24tik 28ra izango da. Eguneroko izango dira kontzertuak. **Hodeiertz eta Kanta Cante-mus.** Abesbatzen kontzertua maiatzaren 22an izango da, 20:30ean, Santa Klaran. **Javier Garaialde Quintet.** Hilaren 7an eta 21ean izango dira kontzertuak Fronton kafetegian, 23:30etik aurrera. Javier Garaialde Quintet ariko da bi egunetan Fronton kafetegian.

METAK JAIA ▶



Ordorika, Bonberenean. HITZA

Musikari handi asko ostiralean Bonberenean izandako jaietan

Anari, Xabier Montoia, Ruper Ordorika eta Miztura izan ziren Metak jaia ospatzeko

I. ETXEBESTE

Kontzertu paregabeak eskaini zituzten ostiralean Bonberenean Metak jaia ospatzeko bildutako musikariek. Besteak beste, Anari, Xabier Montoia, Miztura eta Ruper Ordorika izan ziren bertan, hainbat zaleturen aurrean. Arrakastatsua izan zen jaialdia. Bestalde, ostiralean Maddi Oihenart eta Josetxo Goia izango dira Bonbereneako taulan 22:30ean, eta larunbatean, berriz, Arianna Puelloriko ariko da ordu berean. Espainiako hip-hop abeslaririk ezagunetarikoa da Arianna Puella egun, eta Euskal Herriko gaztetxe bakar batean eskainiko du emanaldia: Bonberenean, hain zuzen.

hilberriak ▶

eskualde hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 687 530258 ▶ tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Juanita Izagirre Irigoien

(Karme eta Ixaskunen ama;
Jexu Mari eta Anttonen amaginarreba)

Une gogor hauetan
har ezazue gure adiskidetasuna
eta goxotasuna

Tolosako ezker abertzalea

TOLOSA, 2004ko maiatzaren 4a

ARETO FUTBOLA ▶

Mailari eustea, gero eta gertuago

Garaipena eskura izan zuen Hegoalde taldeak, baina puntu bakarra lortu

LEIRE MONTES

Mailari eusteko aukera gehiago emango dizkio Hegoalderi asteburuan lortutako puntuak. Dena den, taldeko ordezkariek hitzetan, «dastima» da gehiago ez lortu izana. Hiru puntuak eskura izan baitzituen Ferrolen.

Otsaileko elurteek eraginda atzeratutako partida zen jokatutakoa. Etxeko taldeak presio handia zuen, sailkapeneko behaldeen baitago —11. dira gaziarrak, 23 punturekin; 7. da Hegoalde, eta 29 puntu ditu—.

Kantxak ere baldintzatu zuen neurketa: «Ferrolgo kantxak badu berezitasunik: estua da oso, eta etxeokoa ohituak daude han jokatzeraz, espazioak sortzea zail egiten da han».

Urduri aritu ziren bi taldeak, eta akats asko egin zituzten. Hala ere, jokaldi ikusgarririk ere izan zen; tolosarren bigarren gola, kasu: Nerea Aranek atetik baloia jokatuz zuenetik, lehen ikutuan bost pase jarraian egin, jokalarik guztiek parte hartu, eta Salazarren gola. Zale gaziarrak ere txalotu zuten jokaldia.

Hala ere, puntu bakarrekin konformatu behar izan zuten; denboraldiko gaitza nabaria izan zen berriro: etxetik kanpo ate aurrean ez asmatzea.

ARETO FUTBOLA ▶

Hiru puntuak ihes Laskoraini, GSI Bilboren aurka galduta (6-4)

Telletxeak, Saldiasak, Barriolak eta Lasak sartu zituzten ikastolako golak

L. MONTES

Laskorainek ezin izan zituen hiruhiru puntuak etxera ekarri. 6-4 galduta zuen GSI Bilbo taldearen aurka, La Casilla kiroldegian. Ikastolakoek ez zuten partida ona jokatu, eta atzean batez ere makal aritu ziren.

Lehen zatia, baina, oso berdinduta izan zen. «Bizkaitarrek gogor ekin zioten partidari, eta hasierako minutuetan haiek izan ziren jaun eta jabe. Joko bikaina eskani zuten, gainera: eraso posizionalan 4-0 aurrez landutako mugimenduekin eta baloia gaitzean *pressing* beldurgarria bandan gure eraso behin eta berriz oztapatuz», azaldu dute Laskorain taldeko ordezkariek.

Dena den, Laskoraingoak gai izan ziren lehen uneetako arazoak konpontzeko, eta jokoan ez ezik markagailuan ere berdintzea lortu zuten atsed-

naldirako. Lehen zati amaierako binako berdinketak, hain zuzen ere, garbi adierazi zuen La Casillako kantxan gertatutakoa.

Ikastolakoek hitzetan, «bigarren zatian galduta» zuen haiek partida. Lehen hiruhiru minutuetan bizkaitarrek hiruhiru gol sartu zituzten, maila handiko bi jaurtiketetan. «Gol hauek maldan gora jarri zuten partida guretzat, eta ezinezkoa egin zitzaizgun markagailuari buelta ematea». GSI Bilboren abantaila murrizten asmatu zuten bi aldiz —4-3ko sartu zuten hasiera batean, eta 5-4 gerturaztea lortu zuten geroxeago—, baina hori ez zen partida izan. Gainera, partidaren egon zen 10 metroko jaurtiketa bakarrean kale egin zuen Laskorainek.

Telletxeak, Saldiasak, Barriolak eta Lasak sartu zituzten horitxo golak. Azkenaldian baja ugari ditu taldeak, eta hori

nabaritu egin zen larunbatean. Datorren asterako ere taldeak ezin izango du hainbat jokalarik kantxaratu.

Javi delegatua, Egizabal eta Lasa entrenatzaileak eta Sanz, Bengoetxea, Telletxea, Saldias, Barriola, Lasa, Beldarrain, Yustos, Gil eta Domentxe jokalariek izan ziren La Casillan.

Liga azken txanpan

Hiru partida besterik ez dira falta 2003-2004ko Liga amaitzeko, eta Laskorain taldeko bosgarren da orain sailkapenean. GSI Bilbo igoa da laugarren postura berdinketa honen ondoren. Bi taldeak puntura berdinduta daude.

Taldeko ordezkariek arabera, «azken jardunaldi hauetan gure helburua sailkapenean posturen bat berreskuratzea izan behar du; inoiz ez baita berdin hirugarren, laugarren edo bosgarren amaitzea».

Horretarako, ezinbestekotzak jo dute datorren jardunaldian hiruhiru puntuak poltsikortzea. Urretxuko UZ S. Coop taldea izango du aurkari Laskorainek larunbatean. Berazubi kiroldegian, zaleen aurrean, borrokatuko da garaipenaren bila derbi garrantzitsu horretan.

FERROL ▶ 4

HEGOALDE ▶ 4

Empresa Ferrol. Cabañas, Prieto, Otero, Costa, Saraina, Vieira, Blanco, Lago, Fernandez, Panpin, Rodriguez eta Seco.

Hegoalde. Nerea Arana, Aldezabal, Salazar, Miriam Arana, Zuriarrain, Barrio, Martinez, Laguardia, Prados eta Zelaia.

Golak. 0-1: Pradosek (6m.);

1-1: Blancok (7m.);

1-2: Salazarrek (9m.);

2-2: Blancok (13m.);

2-3: Salazarrek (24m.);

3-3: Costak (28m.);

4-3: Costak (30m.);

4-4: Aranek (35m.).

SAILKAPENA ▶

EMAK. OHOREZKO LIGA

Atzeratutako jardunaldia.

Taldea	I	B	G	P
1. Femesala Elx	20	1	1	61
2. UCAM Murtzia	16	2	4	50
3. Futsi Navalcar	13	4	5	43
4. Tec. Mostoles	13	2	7	41
5. Fot. Zaragoza	11	2	9	35
6. K. Fuenlabrada	9	3	10	30
7. Hegoalde	9	2	11	29

ASTEBURUKO ESKUALDEKO KIROL EMAITZAK ▶

FUTBOLA

Gorengo Maila.

Tolosa-Aloña Mendi 1-1

Sailkapena ▶

1. Berio (62 puntu); 5. Tolosa (52);

20. Amaikak Bat (21)

Lurraldekoak.

Elgoibar-Inburre (1. Maila) 1-1

Ordizia-Tolosaldea (1. Maila) 0-2

Sailkapena ▶

1. Mutriku (61 puntu); 6. Tolosaldea

(47); 16. Gazteak (12)

Jubenilak.

Tolosa-Cult. Durango (Nazionala) 5-0

Inburre-Kostkas Miren (1. Maila) 1-1

Eibartarrak-Billabona (1. Maila) 4-0

Danena-Tolosa (2. Maila) 0-4

ARETO FUTBOLA

Nazionala B.

GSI Bilbo-Laskorain 6-4

Emakum. Ohorezko Maila.

Empresa Ferrol-Hegoalde 4-4

Sailkapena ▶

1. Femesala Elx (61 puntu); 7.

Hegoalde (29); 14. El Palmar (18)

Herritarren Zerrendaren alde sinatzen

POLITIKA ▶ Ekainaren 13ko Europako Parlamentuko hauteskundeetan Herritarren Zerrenda (HZ) aurkeztu ahal izateko, sinadurak biltzen ari da ezker abertzalea. Atzo eskualdeko hainbat alkate ohik, ordezkarik eta herritarrek sinatu zuten HZren alde, Tolosako notariaritzan. Ostirala bitarte sina daiteke eskualdeko herrietan.

LEIRE MONTES



iragarki laburrak ▶

LANA

Emakumea. Emakume bat behar dugu etxeko lanak eta haur bat zaintzeko. Telefona: 943 67 58 95 (arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara).

SALGAI

Baserria. Leaburun baserria salgai, 2001, urtean erabat berritua. 3.000 m²ko terrena, fruitu arborekin. Telefona: 649 26 85 44. **Etxebizitza.** lurreamendi ibiltokian familia bakarreko etxebizitza salgai. Hiru solairu, garajea, bi terraza eta bi lorategi. Interesatuak deitu: 667 98 69 16.

ZIZURKIL ▶ DANTZA

Aukeran konpainiak txalo ugari jaso zituen larunbateko saioan

320 lagun izan ziren frontoian emanaldian; antolatzaileak gustura daude Maiatza Saltsanen hasierarekin

GARAZI AZKUE

Laurehun lagunentzat zuten lekua larunbatean, Aukeran dantza konpainiaren ikuskizuna ikusteko, eta, hirurehun eta hogeigai lagun hurbildu ziren Zizurkilera. Gustura daude oso an-

tolatzeak, «ongi hasi dugu Maiatza Saltsan», zioen Ainhoa Larrea Udaleko kultura teknikariak.

Ekintza garrantzitsuetakoa bat zen larunbatekoa, eta, jendeak gustura ikusi zuen Edu Muruamendiaren dantzariak

zuzentzen duen taldea eta, *Izena duen guztia omen da...* ikuskizuna. «Iparraldetik ere, autobusa antolatu zuten emanaldia ikustera etortzeko», gaineratu zuten Larreak.

Maiatza Saltsan-ek hilabete guztian zehar jarraituko du.

KRITIKA ▶ FERNANDO ROJO (DANTZARIA)

Dantza estiloak uztartuz

lragan larunbatean Zizurkilgo Intxaur pilotalekuan Edu Muruamendiaren gidatzen duen Aukeran dantza konpainiaren azken muntaia ikusteko aukera izan genuen, dantza mota ezberdinez eginiko ikuskizuna. *Izena duen guztia omen da* euskal mitologiaren haria hartuta koreografia ezberdinek osatzen duten ikuskizun bat da. Oraingoan *Muru-k* dantza garaikidea hartu du oinarri, horretarako Katixa Perea dantzari eta koreografoa tolosarraren laguntza izan duelarik.

Ikuskizunak, garatzeko, garaikideaz gain iturri ezberdinetatik edaten du, ordea, klasikoaren eragin garbiak ikusten baitira eta euskal dantza tradizioaletatik hartutako urratsak. Baina gainera tango bat eta Ipar Amerikako *Tap dance*-a ere bai. Gaiarena izan daiteke harrituta uzten duen gauzatariko bat, mitologiara jotzen duelako eta oholitza gainean zaikli sumatu daiteke aintzinako kontaktuz horien arrastorik, explizituki behintzat.

Euskal dantzen urrats (Xiberukoak, Arratiako jotarenak, Gipuzkoakoak) eta euskal folkloreak eszena (Godaletaren exhibizioa, Pastoraletako sarrera, Lekeitioko kutxa, Dantza dantzako hildakoaren figura, Joaldunak...) ikusgarrienak hautatzen munduko hainbat estilo, dantza, doinu eta mugimendurekin jokatzen du. Aitortu beharra da koreografiak apartekorik ez dutela, baina mestizaje hori lortua dago, hau da, estilo guztiok ondo nahastu eta uztartzen ditu.

Amaierarako uzten da parterik espektakular eta mugituena, ikus-entzuleekin nolabaiteko konplizitate bilatzen: fandango eta arin-arinak *cajon flamenco*-ren erritmo eta *tap dance*-rekin uztartuz. Hemen ikus daitezke garbien kanpo eraginak, *Muru-k* betidanik erabili duen eredu, Joaquín Cortes, hala nola, *Lord of the dance*-n keinuak eta Stomp iparramerikaren edo Israelgo Mayumana bezalako taldeen kutsuak, perkusio, mugimendu,

ahots eta bestelakoekin jokatzen duten *performance* taldeak. Azken parte hau bukaerako agurrarekin lotzen du, taldearen ohiko agur luzeegiak.

Ikuskizunak duen onena, zalantza barik, dantzariak dira. Lau mutil eta lau neska modu horretan dantzatzen ikustea ikusleen gozameneko da. Bana bana, teknikoki bikainak, urratsak eta dantzak oso landu eta pulituak eta exekuzioa ezin hobea, denen artean protagonista nabaria Aiert Beobide donostiarrak delarik. Txapela kentzekoa. Nesken artean ezberdintasun nabarmenak ez badaude ere, azpimarratu behar Nahikari Galarraga amasar gaztearen gaitasuna, arintasan eta abilezia horrekin dantzatzeko eta inguruko jendea bereganatzeko. Harribitxi bat.

Musika zuzenean izateak asko jazten du dantzasaioa bera, are gehiago, musikariak kalitatekoak direnean. Agian errekurso erraza da Kepa Junkeraren piezetara jotzea, baina, hauek ere oso ondo exekutatuak dira. Tangorako Pariseko Gotan project talde franko-argentinarraren kanta bat aukeratzean ere dianan jotzen dute, hemen gutxi entzun den arren, *world music*-eko zirkuituetan gozanean izan baitziren duela ez asko.

Ikuskizuneko bestuaria Ramon Garcia errenteriarrena da, gusto anitzetarako eginak, ximplenak politenak.

Bere tarte aspergarriak baditu ere, oro har, ikuskizun ederra da. Gaur egun «euskal dantza» ukitzen duten saio gutxi hauek ez baditugu bultzatzen, geureak azken urteetan duen norabide berean jarraituko baitu, noraezean, alegia. Jakin badakigu herriek ez dutela azpiegitura egokienak horrelako eskaintzak emateko (jendeak zutik ikusi behar izan zuen, dantzetan oinak ikustea derri- gorrezkoa baita), baina, zorionak halaber, Zizurkilgo Udalarik ere, ikusteko tokia aproposena ez bazen ere, antolatzean jarritako indarrarengatik.

ZIZURKIL ▶ GIZARTEA



Zizurkil goien bildu ziren zizurkildarrak. G. AZKUE

Jon Tapia presoari omenaldia egin zioten

Preso zizurkildarrak 21 urte daramatza espetxean, horietatik 2.300 egun «bahituta»

G. AZKUE

Jon Tapia zizurkildarrak, pasatu den hilean, 21 urte bete zituen espetxean. Hori dela eta, omenaldi xume bat eskaini zion Etxerat-ek ostiralean.

Hileroko elkarretaratzea egin ostean, ekin zioten omenaldiari. Herriarrak, lagunak eta senideak bildu ziren hitzorduan, Zizurkil goiko Zimiteyuan. Omenaldian, Jon Tapia berak idatzitako bertsoak kantatu zituzten bertsolariak, lagunak eta Etxerategen eskutitz bana irakurri zioten

presoari Zizurkildik, eta, dantza eta lore eskaintza ere izan zituen Tapiak hurrunetik.

Jon Tapia, Cadizeko Puerto Santa Maria espetxean dago preso, eta omenaldian aipatu zuten, «Espainiako legeen arabera, 2.300 egun daramatza bahituta».

Bertara bildu zirenek, zizurkildarraren «berehalako» askatasuna eskatu zuten ekintza honekin, *Jon etxera behingoz! Sakabanaketa = exterminazioa* zioen pankartaren atzean bildu ziren berrogeita hamar bat herritar.



Herri kirolen topaketa bertan behera

ZIZURKIL ▶ Larunbat honetan zen jokatzekoa Xiba elkarteak antolatutako herri kirolen eta jokoen Gipuzkoako sailkapena. Hala ere, eguraldi txarra zela eta, bertan behera geratu zen topaketa. Zizurkilgo taldeak hartu behar zuen parte. G. AZKUE

HITZA, eskualdeko plaza
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

661 678 818
Toki aproposa iragartzeko

GUTUN@K ▶ 

Txapapotearen marea beltza Ibarrran

Ibarrran, edozein azpiegitura arazoren aurrean (trafikoa, aparkalekuak, espalo faltak...) erraza da konponbidea! Hormigoigehi, eta brea gehiago. Gizarte baten garapen maila hormigoigehi metro karratutan eta azpiegitura erraldoietan neuritzen duen *progresoaren* modako gurpilera (AHT, superportu, hiper-merkatalgune...) igoarazi nahi gaituzte ibartarroi udalletean dauden alderdi politikoek. Hori bai, beti bezala, beraien estiloari fin jarraituz, beraiek soilik, beharrak eta egoera aztertu dituzte eta erabakia hartu dute ibartar guztion ordez, inolako informaziorik zabaldu gabe eta betiere gure *hobebeharrez*. Honela, Diputazioari, bialaren bigarren zatia egiteko eskaria egin diete dagoeneko.

Informazio hori, Uztako zinegotzien bitartez iritsi zaigu duela urte batzuk bialaren proiektuaren aurka ibili ginen hainbat herritarro, gaiarekiko interesa izango genuelakoan. Noski dugula interesa, garai haietan bere sinadura bitartez bialaren aurka agertu ziren 1.000 ibartarrek duten bezala. Ibartar guztiok dugu interesa, herriaren etorkizuna hainbeste baldintzatu eta eragingo duen dimentsio horietako edozein proiektu sortzen duen interesa alegia.

Izan ere, gure iritziz, herritar guztien artean eztabaidatu eta baloratu beharko genituzke honelako proiektu batek zer nolako kalte eta onura suposatuko lituzkeen herrian. Eta noski, baita erabakia hartu ere, honelako erabaki garrantzitsuak inoren esku utzi edo delegatu gabe, eta larriagoa dena, inork ere erabakitzeke aukera herritarro eskuetatik kendu gabe. Ezin dugu ulertu honelako erabakiak isilpean hartzeko izan

daitezkeen interesak. Oraingotan, bialaren aurkako aurreko borrokan bezala, pauso guztiak isilpean eman dituzte, eta orain gaia publiko egiten denean-dugunean, hasiko dira bialaren beharraren eta onurez bonbardatzen, baina badaezpada ere erbia izkutan den bitartean denak isilik, ahal bada eskabadorak sartu arte.

Eta nahiz isilean pasa nahi, guk bialaz hitz egin nahi dugu, Ibarrari eragiten dizkion kalteak handiak direlako eta onurak berriz eskasak, eta horrelako proiektu bat inondik ere justifikatzen ez dutenak.

Ingurumenean duen eraginagatik, Ibarra mendiari lotzen duen inguru natural garrantzitsu bat erdiz erdi moztuko luke herria errepide arteko zuloan utzirik, zenbait baserritako lurrrak erdiz erdi txikituko ditu, ikastolako jolas lekutik metro gutxira, goiko belarditik igaroko da. Azkue auzoan gauza bera gertatuko litzateke, horrek suposatuko duen arriskuaz

gain, kutsadura eta soinua handituz.

Hauek guztiak eragin zuzenak izango lirateke. Badira ordea zeharkakoak ere, Ibarrako komertzioari eragingo liokeen, zenbait baserritako produktioari suposatuko liokeen, bertako jaki-elikagai-bertako komertzio-bertako kontsumo katea gehiago hautsiz. Guzti honek eztabaida sakonagoetara eraman gaitzake. Nolako bizi eredu nahi dugu gure herrian. Ingurumenarekiko errespetuaz, naturarekin loturiko Ibarra. Bertako elikagai freskoek, eta bertako komertzioan oinarritutako herri bizia.

Ibarra bizidunontzat eta gizakiontzat egokituz soilik lortuko da ibartarroi bizi kalitatea hobetzea. Bide horretan neurri gabeko hormigoigehi eta brea marrek ez dute lekurik gure iritziz, alderantziz baizik. Ibartarroi ongizatea hobetzeko, Ibarra bizigune egokia bilakatzeko bidean denok dugu zeresana, denok zer erabakia. Nola nahi

dugu gure herria? Korapiloa askatzeko ez dugu konponbide majikorik planteatzen, bi gauza ditugu argi. Bata, bialak eragiten dituen kalteak izugarriak direla eta Ibarrak ez duela bialik behar, ezta nahi ere duela urte batzu bildutako 1.000 sinadurek adierazten zuten bezala, eta bigarrena, nolako Ibarra nahi dugun denon erantzunkizuna izan behar duela. Herritarrok badugula zer eztabaidatua eta erabakia, denoi eragiten dizkiguten erabakiak 4 katuren esku utzi gabe.

Gure helburua ibartarrok bildu eta guzti hau hausnartu eta eztabaidatzea da. Eta horretan hasteko jarri nahi dugu hitzordua, maiatzak 6 osteguna, iluntzeko Betan Kultur Etxean.

Badugu zer hausnartua, zer eztabaidatua, zer egina eta zer erabakia. Denoi eragiten digunez, denon ardura da. Arduratsua joka dezagun.

XABIER ARTOLA, AITOR GARMENDIA,
JOSE EGIGUREN (BIALAREN AURKAKO
BATZORDEA) ▶ IBARRA

OREXA ▶ JAIK

Giro bikaina Santa Krutz egunean

Intxaurpe eta Elbarrene auzoetakoek lehia polita eskaini zuten herri kiroletan eta pilotan

DANI GIBELALDE

Agur esan zioten atzo oraxarrek Santa Krutz jaiak. Herritarrei zuzendutako eguna izan zen atzoko; Intxaurpeko eta Elbarreneko auzotarren artean lehian aritu ziren, pilotan eta herri kiroletan. Ondoren, pintxo dastaketa izan zen. Jendetza handia eta giro ona izan ziren nagusi. Animo faltarik ez zuten izan bi auzoetako partaideek.

Hiru puntu izan zituzten jokoan bi auzoetako lagunek. Pilotan, binaka, Elbarrenekoek irabazi zuten (22-19). Bigarren puntua Intxaurpekoek irabazi zuten herri kiroletan: trontzan, lasterka, txinga proban, aizkoran, eta lokotsak biltzen. Sokatirak erabaki zuten; bi tiraldi eginda berdinketa zegoen, eta hirugarrengoan Intxaurpe nagusitu zen. Hurrengo urtean beharko du errebantxak.



Trontzan, Elbarrene eta Intxaurpeko bina lagun. D. GIBELALDE



Sokatirak erabaki zuten auzotarren arteko lehia. D. GIBELALDE



www.tolosaldeko hitza.info

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira ▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

BALIARRAIN ▶ GIZARTEA

«Arrakastatsuak», larunbateko txekor- jatea eta antzezlan

160 lagun bildu ziren urteroko txekor-jatean; aurtengo txekorra «inoiz baino hobea» zegoela diote antolatzaileek

OLAIA ESKITXABEL

Txartelak erosi zituzten guztiak agertu ziren larunbatean, maiatzaren 1ean, Atari-Soro pilotalekuan egindako txekor-jatera; guztira, 160 lagun inguru bildu ziren. Bazkaria ezin hobeto joan zen; eguzkiaren berotasuna. Giro bikaina. Txekor-raren haragia ere «inoiz baino hobea» atera zela azaldu dute pozik antolatzaileek: «Haragiak grasa dezente zeukan eta heze-hezea geratu zen; jendea oso gustura azaldu da».

Arratsaldean, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* antzezlanaren izan zen. Aurretik 400 sarrera inguru saldu zuten; gainontzeko sarrerak egunean bertan saldu ziren: «Azkenean eserita 500 pertsona sartzen baziren ere, 40 gehiago sartu ziren zutik ikustea berdin zitzailea san baitzuten», azaldu dute antolatzaileek.

Soinu ezin hobea

Antzerkia hasi aurretik argia joan zen, eguraldia txarto egin zen. Hala ere, antzerkian zehar ez zen inolako arazorik izan; alderantziz. Jendea oso gustura irten zen «oso ondo entzun» zela esanez. Antzezleak berak ere «oso pozik» agertu ziren, zentzu horretan.

Eskuratutako dirua herriko gimnasioa egokitzeko erabiliko dute.



Giro onean joan zen urteroko txekor-jatea. O. ESKITXABEL

540 lagun bildu ziren *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* antzezlanean. HITZA

ORENDAIN ▶ GIZARTEA

Gimnastika saioak eta hitzaldiak, Topagunean

Gimnastika saioak astean ordu batekoak izango dira; adinekoei zuzenduta daude

O. ESKITXABEL

Hurkoa Fundazioak Diputazioak daukan Hurbiltzen programaren barruan eta Orendaingo Udalarekin hitzartutakoaren arabera, ekitaldi ugari antolatu ditu hasi berria den hilabeterako. Hitzaldiak eta gimnastika saioak eskainiko dira. Orendaingo Topagunean (Erretore Etxean) izango dira ekitaldiak.

Lehenengo hitzaldia bihar izango da izango da. *Komunikazioa eta adiskidetasuna: Bizimodu osasuntsurako giltzarriak* titulupean, ongizate maila eta bizi-kalitate hobea lortzera begira, ariketa fisikoa eta mentalarekin eta komunikazioarekin lotuta dauden funtsezko ohituren berri emango dute. Moira Zeberio izango da hizlaria.

Prebentzio lanean

Hurrengo hitzaldia, maiatzaren 19an izango da; bertan, zahartzaroko aldaketa propioak eta aldaketa fisiologikoen berri emango dute. Egoera patrilogikoetatik, ondorio klini-

koetatik eta arazoetatik bereizteko, eta egoera bakoitzaren aurrean prebentzio eta tratamendu egokia egiteko nondik-norakoak agertuko dituzte.

Hitzaldiak ordu eta erdi inguru izango dira; Erretore Etxean izango dira 17:00-18:30era bitartean.

Hitzaldira joan nahi, baina joateko zailtasunak dituztenek garraioaren aukera izango dute antolatzaileek esker; horretarako 943 46 89 56 telefono zenbakira deitu eta Ainhoa edota Leirengatik galdetu dezakete.

Irekiak izango dira, gainera, hitzaldiak; edozeinek parte har dezake. Gipuzkoa Kutxa Aulak emango ditu Urrezko Zerbitzutik.

Adinekoentzat gimnastika

Gimnastika saioak eskainiko dituzte datorren astetik aurrera. Saioak adineko pertsonentzat izango dira eta datorren astean hasi eta astero ordu bateko saioak izango dituzte. Rakel Baz fisioterapeuta izango da irakasle lanetan.

ESKAINITZA ▶

Orendaingo Topagunean egingo dituzten ekintzak azalduko dira jarraian:

HITZALDIK

Maiatzak 5. 'Komunikazioa eta adiskidetasuna: Bizimodu osasuntsurako giltzarriak'. 17:00-18:30. Erretore Etxean.

Maiatzak 19. 'Nola ezagutu zahartzaroko gaixotasunak eta horiei nola egin aurre'. 17:00-18:30. Erretore Etxean.

GIMNASTIKA SAIOAK

Maiatzak 10, 13, 24, 27. 16:00-17:00. Erretore Etxean. Adinekoentzat.

IRAGARKI LABURRAK ▶



San Frantzisko etorb. 47-behea
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: ernio@inmoernio.com
www.inmoernio.com

Tolosa. Erremontari kalean, guztiz berritutako apartamentua, gazteentzako aproposa. 138.233 euro.
Tolosa. Kale Nagusian, 55 m²ko etxebizitza salgai; bi logela, sukaldea, egongela eta komunak. Egoera ezinhobean. 155.061 euro.
Tolosa. Erremontari kalean, bi logelako apartamentua satzen da. Oso egoera onean. 159.268 euro.
Tolosa. Erremontari kalean, bost urteko eraikuntza berrian apartamentua salgai. Berokuntza eta igogailuarekin. Adineko pertsonentzat aproposa.
Tolosa. Enperadore kalean

etxebizitza salgai; bi logela, sukaldea, egongela eta komunak. Sartzeko moduan. Berokuntzarekin. 142.440 euro.
Tolosa. Bidebieta auzoan, hiru logelako pisua salgai. Berogailuarekin eta hainbat berrikuntza eginda.
Tolosa. Larramendi, Pisu ederra garajearekin salgai.
Tolosa. Gorosabel kalean, 120 m²ko etxe ederra saltzen da, berogailuarekin eta hainbat berrikuntza eginda.
Tolosa. Iurre auzoan, apartamentua salgai, adineko pertsonentzat edo mugitzeko arazoak dituztenentzat aproposa.

Tolosa. Iurramendi auzoan, Sam-eko bi etxe abi salgai, lorategi eta jardinekin. Ikustekoak!
Ibarra. Julian Gaiarre kalean. Berritutako etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela eta komunak. Berogailuarekin. Guztiz kanpoaldera.
Ibarra. Euskal Herria kalean pisua salgai; hiru logelarekin, trastelekuak eta garajea hartzeko aukerarekin.
Irura. Duplex zoragarria salgai, trasteleku eta garajearekin. Terraza ederra.
Berrobi. Bi logelako pisu merkea. Toki lasaia. 141.839 euro.
Legorreta. 88 m²ko etxebizitza

salte da. Ikusmen ederrekoa eta oso eguzkitsua. 159.268 euro.
Alegia. Hiru logelako pisu ederra salgai, eguzkitsua eta dena kanpoaldera. Ikusteko modukoa. 155.061 euro.
Alkiza. Eraikuntza berriko azkenengo etxe bifamiliarra salgai.
Lizartza. Etxe ederra salgai herrian bertan. Erreforma egiteko. 171.288 euro. Sekulako aukera!
Baserriak. Baserriak aukeran ondoko herrietan: Asteasu, Tolosa, Tolosaldea, Bidania, Aia...
Pibilioiak. Aukera handia; salmantan eta alokaurian.
Borda. Salgai Urrietan.

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Abaltzisketa. Eklipsea teleskopioz ikusiko dute Larraitoko Zamao atsedenekuan 21:30etik 24:30era.

Aduna. Herriarren Zerrendarako sinadura bilketa udaletxean 17:00etatik 20:00etara. Ostegunean 9:00etatik 14:00etara.

Tolosa. Datorren igandean Senperen izango den Herri Urrats festarako autobus antolatu ditu Galtzaundi Euskara Taldeak. Izen ostirala arte eman daiteke 19:00etatik 21:00etara Galtzaundin bertan (Nafarroa etorbidea 6).

ERAKUSKETAK

Hernialde. Olivia Sanchez ibartarrak bere akuarelak erakusten ditu Hernialdeko Ostatuan.

Tolosa. Gorren komunitatearen I. Sentsibilizazio Astearen erakusketak Kultur Etxean. Aste osoan. Gaintzen elkarteak antolatuta.

Ibarra. Nairobitarraren argazki erakusketak Benito Izagirre Kultur Etxean.

Tolosa. Jose Mari Sasieta eskulturgile donostiarrak bere lanak ditu ikusgai Aranburu Jauregian maiatzaren 8a bitarte.

Zizurkil. Kakumako (Kenia) errefuxiatu kanpamendu bateko haurren marrazkietan oinarritutako Behin ihes egin behar izan genuen erakusketak. Maiatzaren 14a arte Abulondo kultur etxean.

ZINEMA

Tolosa. *La pasion de Cristo.* 19:30ean eta 22:30ean Leidor zineman.

Adokinak hondarraren azpian

TOLOSA ▶ Hondar berria jartzeko, zegoen guztia kendu dute zezen-plazan; azpian idi-probetarako galtzada-harria eta apustuatarako ibilbidea ageri da



Idi probetarako galtzada-harria eta korrikalari apustuatarako uztia agerian dago egun hauetan zezen-plazan. JOXEMI SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Adokinen azpian hondartzak zeudela aldarrikatzen zuten Parisen mani-festariak 1968ko maiatzan. Orain alderantzizkoa gertatu da Tolosako zezen-plazan galtzara-harria agertu da hondarraren azpian.

«Bizpahiru urtez behin zezen-plazako hondarra berritu egiten dugu Inauterietan konfietekin, aizkolaria apustuatan ezpalekin eta bestelakoekin asko itsusitu egiten delako»,


adierazi dio HITZARI Enrique Lopez Patas zezen-plazaren zaintzaileak. Duela gutxi kendu dute hondar guztia eta datorren asteko larunbatean bi kamioikada ekarriko dituzte Zornotzako harrobitik eta zezen-plaza dotore-dotore utziko dute hondar berriarekin.

Azpian idi-probetarako erabiltzen zuten galtzada-harria —azken apustua 1978an egin zen— eta korrikalarien apustuatarako ehun metroko uztia —azkena 1998an erabili zen— agertu dira.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Manex Karrera (Alegia).
 Gaur 7 urte. Zorionak prezioso familiaren partetik



URTE ASKOAN
Uxue Larrea Tolosa (Amezketak).
 Gaur urtebete. Zorionak Amezketako lehen-gisua Garazi, Oihana eta Maiteren partetik.

HITZA, zorion agurren tartea
 Urtebetetzak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara
 (Araba etorbidea, 5 behea - Tolosa)
 Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago.
 Mila esker!

DENDA HAUEN Tolosaldeko HITZAren LAGUNTZAILEAK DIRA
 Egin itzazu zure erosketak bertan

- Pottoko Haur
- Jantziak
- Nerea Lentzeria
- Mikel Izagirre
- Ileapaintzaileak
- Iriarte Lentzeria
- Berezi Neurri
- Bereziak
- Factory
- Elite Kirolak
- Bazar Amiano
- Kopibat
- Cid Bitxitegia
- Lizarribar
- Oinetakoak
- Arri Oinetakoak
- eta Konponketak
- Desgaste
- Oinetakoak
- Aralar Kirolak
- Muebles Garces
- Haur Jantziak
- Oski
- Garikano 1815
- Azpiko Arropa
- Amaia Lentzeria
- Kiara Bitxitegia
- Poxpolin
- Enmarkazioak
- eta Opariak
- Milar Electro-
- Hogar
- Imen Bitxitegia
- Pressto Tintoreria
- Oñativia
- Lurrindenda
- Elola Altzariak
- La Vasconia
- Axular Oinetakoak
- Iratzar Erlojotegia
- Zumeta
- Elektrogailuak
- Arretxe Mertzzeria
- Ugarte Bitxidenda
- Bitxilore
- Juan Luis Bitxitegia
- Ezenarro Leihoak
- Kanikak arropa
- denda

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELARAKIN
%5*-eko
BEHERAPENA IZANGO DUZU ZURE EROSKETAN.
 (Martxoetik ebalaina)
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN!

*Promozio hau ez zaie beste beharapenei gehituko. Eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da.